

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Barcina Lehendakaria Caparrosoko Segura Taylor ehunkien konfekzio-enpresa ikustera joan da

Enpresak 50 langile inguru ditu eta Sodenaren babesa jaso du.

Martes, 04 de febrero de 2014

Yolanda Barcina Nafarroako Lehendakariak jantzigintzan jarduten den Caparrosoko Segura Taylor enpresara egin du bisita. Lourdes Goicoechea lehen lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariarekin, José Carlos Fernández eta Inmaculada Ibero zuzendari nagusiarekin eta fabrikako zuzendariarekin, hurrenez hurren, eta M^a José Lasterra Caparrosoko alkatearekin izan da .



Barcina Lehendakaria Caparrosoko Segura Taylor enpresara egin duen bisitako une batean.

Segura Taylor 2011n sortu zen, Espainiako jantzigintzako sektorean enpresa erreferenteetako bat bihurtzeko. Abian jartzeko, Nafarroako Gobernuaren babesa jaso zuen, Nafinco (gaur egun Sodenaren parte da) enpresa publikoaren bidez; enpresaren egoitza den nabea alokatu zuen.

Gaur egun 36 eta 50 langile artean ditu enpresak, eskaria gorabehera, eta horien ehuneko 85 eskualdeko emakumeak dira. Urtean 8.000 jantzi ere ekoizten ditu.

Bisitan, Lehendakariak eta lehendakariordeak enpresa handitzeko planen berri izan dute. Segura Taylor inbertsio-proiektu batean sartuta dago eta, horren bidez, negozio-ildo berriak ireki eta instalazioak eta ekoizpen-sistema hobetu nahi ditu. Helburua estatuko merkatuan finkatzea eta nazioarteko merkatuetara zabaltzea da. Horretarako, enpresak marka komertzial gehiagorekin sinatu nahi ditu itunak.

Itxura guztien arabera, ekoizpen-sistema berriak ezartzeak eta emakumeentzako linea berri bat merkaturatzeak enpresari bi urtean trajeen egungo ekoizpena bikoizten lagunduko die. Bestalde, bereziki nazioarteko merkatura bideraturiko alkandoren linea berriari esker, 2015ean 16.000 jantzi ere egitea lortuko da. Horrek 15 lanpostu sortzea ekarriko luke.

Amaitzeko, Segura Taylor enpresak langileen prestakuntzako esperientzia Lantegi Eskola bat sortzeko baliatu nahi du, ehunkien

sektorean espezializatutako jendea prestatzeko.